

hiruka

173. zenbakia
2021eko uztaila

ZUHAITZ GURRUTXAGA Telebista-aurkezlea eta futbolari ohia

**«Umoreak
sufrimendua
arintzen du»**

UZTAILA

PROGRAMAZIOA

KONTZERTUA



BRINGAS

UZTAILAK 9 OSTIRALA 19:00 / 8€

KONTZERTUA



BIG DADDY WILSON

UZTAILAK 10 LARUNBATA 19:00 / 12€

BERTSO-SAIOA



BERTSO JAIALDI MUNDIALA

Nerea Ibarzabal - Alaia Martin
Maialen Lujanbio - Aitor Sarriegi
Sustrai Colina - Unai Mendiburu

UZTAILAK 14 ASTEAZKENA 19:00

Sarrera: RKEEn eta Muxikebarrin jaso beharreko gonbidapenez

ANTZERKIA



EZ DOK ERO TARTEAN TEATROA

UZTAILAK 30 OSTIRALA 19:00 / 12€




94 466 0123
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Furgonetan edo autokarabanan bidaiatzeko gomendioak
- 14 Udako ezohiko jaiak
- 16 Euskarari, atara kontuk!
- 17 Hasi eta haszten jarraitu
- 18 Larrubizi
- 19 Zinemaz bizi
- 20 Hirudika: Getxophoto jaialdia
- 26 Lehen/orain eta Uribitakora
- 28 Zuhaitz Gurrutxagaz solasaldia
- 34 Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren itzulera arrakastatsua
- 35 «Poesia ez da desagertuko, bide berrien bila dago»
- 36 Horoskopoa
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Udako zozketa bereziak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Julen Nafarrate, Joanes Atxa, Karlos Aretxabaleta Txapel, Nerea Garcia, Iñigo Esteban Lezkano, Joseba Santxo eta Kronika (azaleko argazkia).

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Udaberriarekin Loreak

GOTZON BATIKON ETXEGARAI



Aspaldian, euskal herrietatik ibili barik, eta zer topatu dut gure bazterretatik? Loreak. Gure belaunaldia gogor dator hamarkada honetan. Artean, ekonomian, kiroltan, biologian edo medikuntzan. Etorkizunaz, hortaz ari ziren batzuk. Artea begietan dugunontzat, esperantza hitzetan, ametsetan. Ziklo berria datorrela argi dago; zergatik ez aprobetxatu haize berri hau sormenerako? Horretan dabilta batzuk; beste batzuk, kanpoan bide berriak irekitzen. Edo auskalo zeinek ireki dituen aurrea, baina norberarentzat berriak dira. Pausoak, arnasa, goizean goiz begiak ireki, eta eskertu. Hura delako oparia. Norberak nahi duena egitea. Aprobetxatu eskura ditugun baliabideak nahi duguna lortzeko. Apaltasuna, jende nagusiaren esperientziatik eta ume jaioberriaren osotasunetik elikatu. Galdetu, bilatu, eta gure burutik, harri huts hori atera. Badatorrela gure udaberria. Sinistu dezagun, gurea dela aztarna eta sormena. Zertarako etorri gara mundu honetara? Zorrak ordaintzeko, auzokideari aurpegira ez begiratzeko eta bakardadean itotzera? Ez motel, zerbait handia egitera etorri gara. Baina arnas dezagun barrura begira, ea zeinek jartzen dizkien oztopoak gure ametsei eta eraikitzen dituen barrote ikusezinak. Heldu da zure udaberria, gozatu.

Diamonds on the soles of her shoes

AINHOA ORTELLS IGARTUA Kulturegilea eta artista



Sol sol fa fa mi mi re re do do re mi fa sol la sol sol fa fa fa fa fa fa mi re re mi fa sol fa fa mi re mi mi re do fa mi re re fa sol sol fa fa mi re re do do re mi fa sol la si la sol sol fa mi re re re si do re mi fa sol la sol fa fa mi re do do do la si do re mi sol fa mi re re sol fa mi re fa sol la sol fa mi re do si la sol fa sol la si do Ponme esa cinta otra vez, *¡¡pónmelaaaa hasta que se arranqueeee!!*

Urtebetez izan dela gustatuko litzaidake esan ahal izatea, baina nahikotxo gehiago ari da hau luzatzen... Kultura pantailatik bakarrik ikus-bizitzea *es un rollo*.

Eta gero halakoak gertatzen dira, artista bati iritzi artikulatu bat idaztea eskatzen diotela eta musika idazten amaitzen duela. Jada kaleetan ez dugunez, behintzat hemendik eskaintzea. *We come and we go*.

Baina gure ostean datozenak badaude:

Erre zituzten sorgin horien oinordeak (eta zutik jarraitzen dugunak ere, geroz eta lotuagoak gaudenak gainera... bai kultura A, bai kultura B edo Z)

Oihu eta irrintzi!

«Diamonds»ak dauzkagu zapaten zolan, herria kulturaz blai dabil, baina ez dirudi argira atera nahi gaituztenik. Espero dugu «jada beranduegi» esan behar ez izatea hemendik gutxira. Baga, biga, higa...

Puntua eta kontrapuntua **Uda**

Urtarorik onena

*Ekaina iristean
badugu ohitura
rutina apurtzeko
oporren kontura:
bidaia, udaleku,
festa, abentura..
Dena azkar hastea
baino ez dut gura.
Urtarorik onena
ez ote da uda?*

ITXASO
PAYA
RUIZ
Algorta

*Noski onena dela
udako garaia.
Dana da bizipoza,
dana da alaia.
Baina birus bat dugu
pozaren etsaia,
elkarrizketa denen
ardatz eta gaia.
Udari hartzen diot
gozamen usaia!*

UNAI
ANGULO
ALDEKOA
Algorta



Andone Atxa, Marga Agundez eta Paki Carmona Irakasle ohiak

«Berangoko eskola beti eramango dugu bihotzean»



Ekainean erretiroa hartu zuten Marga Agundez, Andone Atxa eta Paki Carmona irakasleek, Berangoko eskolan 35 urtez lan egin ostean.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Asko aldatu da Berangoko Santa Ana auzoa azken 35 urteetan. Landa eta baserriak zeuden lekuan, txaletak agertu dira orain. Eta Santa Anako eskolaren ordez, Antzokia eta Kultur Etxea. Aldaketa horren lekuko izan dira Paki Carmona, Marga Agundez eta Andone Atxa irakasleak.

1986. urtean hasi ziren bertan lanean, D eredua Berangon sortzeagaz batera: «Erronka handia izan zen. Eskola txikia zen, eta dena egiten genuen denon artean». Euskarari bultzada ematea izan zen euren lehentasuna garai horretan: «Ez zegoen materialik, guk marrazten genituen ipuinak, plastifikatu...». Baldintza eskasak izan arren, oso oroitzapen onak gordetzen dituzte hirurek: «Oso ha-

rreman estua genuen inguruko baserritarrek, masustak eta pikuak ekartzen zizkiguten. Eta Angelita garbitzaileak asteazkenean palomitak denontzat!».

Berangoko Santa Anako eskola itxi zen arren, orduko hurbiltasunari eusten saiatu dira hiru irakasleak Berangoko eskolan: «Orain, eskolak emateko modua aldatu egin da, teknologia dela eta batez ere. Baina mantentzen dugu afektibitatea, umeeiko errespetua... Hori ez da aldatu». Eta, orain, erretiroa! Zer egiteko asmorik? Ez dago erantzun bateraturik: «Plan berezirik ez», «zeozer ikasi agian», «ordutegirik gabeko bizitza»... Baina guzti-guztiek argi dutena, hauxe da: «Berangoko eskola beti eramango dugu bihotzean».

Elkarrekin hasi zuten ibilbidea, eta elkarrekin amaituko dute hiru irakasleek: «Ekain osoa eman dugu erdi negarrez». Osasun-krisiaren eraginez, ez dute ganoraz ikasurtea amaitzeko aukerarik izan: «Bagoaz agurtu gabe». Eurentzat, azken Korrikan jaso zuten merezitako agurra, ikasle ohiek pankarta bat egin zietenean honako mezua-gaz: «Zuei esker euskaldunak gara». ◀

Barraskiloen pare, etxeagaz alderik alde





**Kontu berria ez den arren,
izurriteari aurre egiteko
babes-neurriek hauspotuta,
azkenaldian goraldia izan
du kanper furgonetan edo
autokarabanan bidaiatzeak.
Horrek dakarren askatasunak eta
malgutasunak zale asko erakarri
ditu orain. Hala ere, abenturari
ekin aurretik, kontuan hartu
beharreko hainbat gako gogoan
izan behar ditugu.**

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ►

Heldu da uztaila eta, horregaz batera, bueltan dira udako oporrak eta bidaiak. Koronabirusak eragindako Alarma Egoeraren amaierak mugimendu-as-
katasuna ekarri du, eta jende askok bidaiatzeari ekingo dio hilabeteotan. Hala ere, aurtengo oporrak, iazkoak be-
zain gorabeheratsuak izatea aurreikus-
ten ez den arren, ezohikoak izango dira
ere, normaltasun berriko bigarren eta-
pak bestelako baldintzatzaileak ekarri
dituelako, besteak beste.

Koronabirusak errotik aldatu ditu bidaiatzeko moduak, goi-
tik behera. Hala, Europako Covid Ziurtagiri Digitala edo test
negatiboa eskuan nazioartean bidaiatzeko aukera egongo den
arren, gehienek gertuko turismoa egingo dute, norberak era-
bakita edo halabeharrez. Horien guztien artean, abenturaza-
leenek zein natura eta aire zabaleko kirola maite dutenek, uda
honetan, zalantzarik gabe, aukera ezin hobea izango dute fur-
goneta kanperrean edo autokarabana batean bidaiatuz opo-
rrez goatzeko; beste askok, ordea, aldeztu aurretik erabakita
errepikatuko dute esperientzia, ez baitira gutxi molde horre-
tan murgilduta dauden gazteak, eta ez hain gazteak.

Mota horretako ibilgailuetan bidaiatzea, batez ere, indepen-
dentiaren sinonimoa da; tradizionalki, zerbait alternatiboa
izan da, ohikoa ez dena. Garai bateko hippyentzat eta noma-
dientzat bidaiatzeko modua izan da kulturalki; hala ere, az-
kenaldian, aurrez ezarritakoaz eta arruntaz nekatuta, espe-
rientzia berriak bilatzeko ohitura hasi da askoren artean, are
gehiago orain, izurriteak baldintzatuta, urruntze soziala ber-
matzeko beharragatik eta aurreikuspenak egiteko zailtasunak
direla medio.

Ibilgailu horiei esker, ahaztu ahalko dira aldeztu aurretiko
hotel-erreserbak edo apartamentu turistikoen alokairuak,
baita, nahi izanez gero, leku masifikatuak eta turistifikatuak
ere. Izan ere, inolako mendetasunik gabe mugitzea ahalbide-

tzen dute gurpildun etxeok, ostatua eta garraiobidea, aldi berean, eskainita. Furgoneta edo autokarabana behar bezala kanperizaturta egonez gero, bertan egun batzuez bizitzeko beharrezkoa den guztia izango dugu eskura: ohea eta dutxa, eta, kasu batzuetan –zorionekoena– baita bainugela eta barruko dutxa ere. Autokarabanez, normalean, aipatutako guzti-guztia eskaintzen dute, baina, furgoneten kasuan, horien tamainaren arabera egokitu beharko da «apartamentua»; kasuotan, bidaia autosufizientzia-ariketa bat izango da, halaberrez. Baina, horrek ez du zertan negatiboa izan behar, askotariko trikimailuak baitaude aurrera egiteko inolako arazorik gabe, ez izan zalantzarik.

BIDAIARI EKITEKO PREST. Koronabirusaren gaitzak baldintzatutako garai honetan, bidaiatzea maite dutenek askatasun osoz alderik alde mugitzeko eta mundua ezagutzen jarraitzeko aukera paregabea izango dute furgoneta edo autokarabana bat. Hala ere, bidaiatzeko modu hau maiteminduko duenik ziur ez daudenek, ezer erosi aurretik, aukerarik onena izango dute ibilgailua alokatzea. Horretarako enpresa asko daude inguruotan, asteburuko zein egun gehiagoko bidaietarako eskaintzak dituztenak. Askotarikoak izan daitezke, beraz, garrantzitsua da norberarentzat egokiena zein den jakitea: furgoneta txiki batetik has daiteke bidaiatzen, ohea besterik eskaintzen ez duena; baina, aurretik esan bezala, luxu guztiak batzen dituen

Non egin lo?

Espainiar Estatuan, orokorrean, baimenduta dago kanpinetan, furgoneta eta autokarabanentzako bereziki prestatutako aparkalekuetan eta berariaz debekatuta ez dagoen urbanizatu gabeko lekuetan gaua igarotzea. Garrantzitsua da, edonora abiatu aurretik, kokalekuak bilatzea, ondoren gustukoen duzuna aukeratu ahal izateko.

autokarabana ere aukeratu daiteke. Gustu eta beharren arabera.

Modu askotan mugi daiteke ibilgailuotan, baina, guzti-guztietan, adi ibili behar da non kanpatzen edo gaua igarotzen dugun erabakitzerakoan. Erraz imajina daiteke furgoneta-aren ateak ireki eta zur eta lur uzteko moduko paisaia baten aurrean esnatzea. Benetako gozamena da hori, baita honela bidaiatzearen plazerik handienetako bat ere. Hala ere, ezin izango da edozein lekutan aparkatu eta lo egin, legeek hainbat muga jartzen dizkiotela horri. Kontuan izan behar da ez dela berdina kanpatzea, hau da, mahaitxoak eta aulkiak ateratzea, adibidez; edo, zuzenean, lo egitea. Lehenengo kasua erraz debeka daiteke; bigarrena, aldiz, ia beti baimenduta egongo da, udal-ordenantzek hala debekatzen ez duten bitartean. Izan ere, herri batzuek oso mugatuta dituzte horrelako ibilgailuek gaua igaro dezaketen lekuak, eta parke nazionaletan erabat debekatuta dago. Beraz, inon gelditu aurretik, aztertu zeintzuk aukera dauden, eta hautatu egokiena. Horretarako, askotariko webguneak eta aplikazioak daude –www.furgovw.org eta Park4Night aplikazioa–, bidaiarien komunitateak beren-beregi eguneratzen dituztenak.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK. Barraskiloen antzera, etxeagaz aurrera eta atzera bidaiatzeak alde on asko ditu, baina baita hainbat eragozpen ere. Bidaiari ekin aurretik erreparatu behar diogun lehenengo gauza da biltegiatzea. Furgonetaren edo autokarabanaren



arabera, gauza asko edo gutxiago kabituko dira, eta horren arabera erabaki beharko da zer eraman edo ez, baita zenbat egunerako bidaia den ere. Bigarrenek bidaiatzeko beharrezkoa den guztia izan ohi dute, hala lehenetsita. Hala ere, furgoneten kasuan ez da horrela, eta norbera konpondu beharko da tresneria batzeari; ohikoenak dira: sua, harraska, ur-biltegia, hozkailua, ohea, sukaldeko tresna mordoa, mahaia, kanpin-aulkiak, mailetak eta elikagaiak sartzeko leku asko. Nork ematen du gehiago? Ziur naiz beste hainbat gauza ahaztu ditudala zerrenda horretan, hala nola komunarena egiteko pottia edo WC kimikoa –lekua badago, noski-. Zorionekoak bai komunagaz mugitzeko aukera dutenek... Halakorik izan ezean, kanpin, taberna eta halakoetara jo beharko da. Dutzatzeko, aldiz, kanpinetara hurbiltzeaz gainera, hondartzetan, igerileku publikoetan zein erreketan egin dezakete txonbo; zerbitzu gune askok, gainera, kamioilariarentzako dutxak izan ohi dituzte, eta horiek ere aprobetxa ditzakete bidaiariek.

Badirudi furgoneta batean denetarik sar daitekeela, eta ez dela inoiz lekurik faltako, baina ez da horrela. Ezinezkoa da toperaino kargatutako ibilgailu batean kozinatzea, jatea, lo egitea, janztea edota mugitzea. Hortaz, adi ibili beharra dago: bizitza erosoan izan dadin, ezinbestekoa den gutxienekoa eraman behar da, besterik ez. Hala ere, antolatzea besterik ez da: eramateko tresna edo objektu bakoitzak funtzio bat –edo bat baino gehiago– izan behar du, baita ahalik eta txikiena izan



Garrantzitsua da ondo aurreikustea zer eraman eta zer ez, ibilgailua topera ez egoteko.

Komunik eta dutxarik ez izatea da bidaiari askorentzat ibilgailuotan mugitzeko trabarik handiena. Hala ere, modu askotara egin dakieke aurre arazooi.

ere. Berebiziko garrantzia du atal honetan tolesgarriak diren edo beste elementu batzuen barruan sar daitezkeen gauzak, lapikoak, berbarako. Halaber, tresna horiek guztiak modu eroso batean antolatzea inportantea da, horiek bilatzerakoan zoro moduan dena hantzez gora ez jartzeko. Horretarako, ibilgailuok poltsiko, tiradera, armairu eta txoko asko izaten dituzte; aprobetxa itzazue, gupida barik! Izan ere, gogoan izan ibilgailuotan ia guztia eskura dagoela, hau da, «gela» berean daudela ohea, arropa, sukaldea... Horrek esan nahi du, batzuetan, praka bat janzteak sabaiaren



kontra kolpe bat ematea dakarrela, sardexka bat hartzen saiatzeak esnea botatzen dela amaitzen duela edo maindireek eta arropek aurreko eguneko afariko txistorraren usaina dutela. Horren aurrean, beharrezkoa da, esan bezala, oso ordenatua izatea, ezbeharrak ahal den neurrian saihesteko, eta horiek gertatzen direnean umorez hartzea; ez ahaztu oporretan gaudela.

BEROAREN AURKAKO GOMENDIOAK. Ahaztu udako egunik beroenetan berandura arte lo egitea, eguzkia furgoneta berotzen hasten denean egosten hasiko garelako. Hori dela eta, gogoan izan behar da beti, ahal den neurrian behintzat, itzalpean aparkatzea. Kristaletan islatzaileak jartzeaz gainera, gauetan gomendagarria da leihoak irekita lo egitea, gutxi

Beheko laukitxoetan furgonetan edo autokarabanan bidaiatzeko trikimailuak azaltzen dira, urtez urte, adituek eta eskarmentua duten bidaiariek horien berri emandakoak, alegia.

bada ere, korrante apurra sortzeko. Kasu batzuetan, ibilgailuek bigarren bateria izango dute, eta, hala, aire girotua piztu ahalko da; halakorik ez dagoenean, aldiz, aukera merkea izan daiteke mugikorrak kargatzeko kanpoko bateriak edo *power bank* delakoak eskura izatea eta haizagailu eramangarri batzuk piztea. Horiekaz, gainera, gainean ditugun gailu elektroniko guztiak kargatu ahal izango ditugu ibilgailua martxan ez dagoen bitartean.

Furgonetan eta autokarabanan bidaiatzearen aldeko beste hainbat alde komenta daitezke lerrootan, baita alde ilunak ere. Hala ere, argi esan beharra dagoena da, erabiltzaileek hala ziurtatu dutelako, modu horretan bidaiatzea dibertigarria dela, esperientzia betea eta askatasuna ematen duena. Hala ere, gogoan izan ez dela perfektua. Probatzeko prest? ◀




Pala tolesgarria

Naturaren erdian gaudela, eta komunik ez dugula, kaka egiteko zuloa egin dezakegu pala tolesgarriagaz, ondoren tapatu eta papera jaso txakur-poltsa batzuetan.



Botila moztuta

Depositatuak askotan bete behar dira, hala nola urarena edo gasolioarena. Horretarako, inbuturik ez dugunean, botila bat ahotik moztu eta tresna erabilgarria izango dugu.



Mosketoiak eta soka

Bidai luzeetan arropak garbitu beharko ditugu, eta horiek sikatzeko beharrezkoa izango dugu esekileku bat egitea. Horretarako, elementuok besterik ez dira behar.



Goma-aparra edo kartoia

Tiraderak eta kutxak tresnez beterik izango ditugu. Bidaian, horiek zaratarik eta dardarka ez ibiltzeko, goma-aparra edo kartoia jar dezakegu biltegien fondoan.



Iman-tirak eta eltxo-sarea

Udako beroari aurre egiteko leihoak zabaltzea ezinbestekoa izango dugu askotan; ibilgailu barrura eltxoak eta bestelako intsektuak ez sartzeko, imanakaz sarea jarri.



Eguzki-plaka edo bateria

Ibilgailua geldirik dagoenean ez dugu elektrizitatearik izango. Horretarako, eguzki-plaka tolesgarriak edo kanpoko bateriak erabili ditzakegu gailu elektronikoetarako.



Eskuzko pikatzailea

Kozinatzeko gailu askorik ez dugu izango bidaian, hala ere, elektrizitatearen beharrik gabe eskuzko pikatzaile bat eron dezakegu sukalde-lanak arintzeko.



Sabaian jartzeko sarea

Kasuan kasu, gauzak gordetzeko eta antolatzeko lekua soberan ez dugu izango. Hori dela eta, ibilgailuaren sabaian, barrutik, espazioa irabazi ahal izango dugu honela.



Goi-mailako teknologia erabiltzen dute ibilgailuen azterketa eta konponketak egiteko.

Artolozaga anaiak, 40 urteko esperientzia ibilgailuen mekanika profesionalean

Artolozaga anaiak berrogei urte baino gehiago daroztate goi mailako zerbitzu teknikoak eskaintzen, eta adituak dira marka guztietako ibilgailuen konponketan. Lau hamarkadetan zehar, etengabeko hazkundea izan dute, eta Sopelako Gatzarriñe kaleko 42 zenbakian duten egoitza nagusiaz gain, beste tailer bat dute Sestaon, Miguel Servet kaleko 6 zenbakian.

Mekanikan adituak dira, diesel zein gasolina ibilgailuetan, marka guztietan, mekanika orokorrean, eta elektrizitate eta elektronikan arloetan. Txapa- eta mar-

gotze-zerbitzuak, erabilitako ibilgailuaren azterketa, diagnosa eta fabrikatzaileak ezarritako azterketa eskaintzen dute, beste zerbitzu askoren artean. Dena kalitate bermatuarekin eta bezeroarenganako arreta pertsonalizatua izateko konpromisoagaz, eta, beharrezkoa izanez gero, kortesiazko ibilgailu-zerbitzuagaz. Gainera, Artolozaga anaiak *Bosch Car Service* sa-


rean kideak dira, kalitate eta konfiantza zigilua ematen diena, eta ingurumenagaz eta erantzukizun sozialagaz duten konpromisoren adierazgarria.

UDALDIRAKO PREST? Udako oporretan etxeko ibilgailuek ohi baino bidai luzeagoak egiten dituzte, eta, horrexegatik, errepidera atera aurretik, autoaren egoera orokorrari erreparatzea ezinbestekoa da, bidaiari ezustekorik ez izateko, besteak beste, adituen araberak.

Enrike Artolozaga mekanikoak aholkatzen du bidai luzeak egiten aurretik ibilgailuaren berrikuspen orokorra egitea: gurpil-higadura eta olioaren maila, besteak beste. Horretaz gain, garrantzitsua da ihes-hoditik ateratzen den keari erreparatzea ere: ke asko ateratzen bada, gure ibilgailuaren motorrak aire gutxi hartzen duenaren sintoma izan daiteke, ibilgailuaren potentzia murriztuz. Horrelako kasuetan tailerrera bertaratzea gomendatzen du.

Artolozaga tailerrak Bosch Car Service sareko kide dira, konfiantza eta kalitatea bermatzen duen zigilugaz

Opakotasuna eta emisio-kontrola



Ba al zenekien IAT (Ibilgailuaren Azterketa Teknikoa) gainditzeko ez duten ibilgailu gehienek emisioengatik eta opakotasunagatik egiten dutela kale? Azken urteetan, ikuskapena gainditzeko neurriak zorrotz egin dituzte, eta, diesel ibilgailuen kasuan, kearen opakotasunagatik, eta, gasolinakoenean, CO isurpenengatik, askok ez dute azterketa gainditzeko.

Artolozaga anaiak arazo hori konpontzeko ibilgailuen sistema informatikora jotzen dute. Motorrean inolako esku-hartzerik egin gabe, ibilgailuen ke-isurpena egokitzeaz gain, kontsumoa ere nabarmen gutxitu dezakete, gutxiago kutsatuz.

Hala ere, IAT pasatu aurretik, zalantzarik izatekotan, Artolozaga anaiak beti gomendatzen dute alde aurretik beraien IAT aurreko-zerbitzura jotzea.



ARTOLOZAGA ANAIK

Gatzarriñe Kalea, 42, 48600 SOPELA
Telefonoa: 946 763 814

Miguel Servet Kalea, 6, 48910 SESTAO
Telefonoa: 944 721 374

Astelehenetik eguenera: 08:30-13:00
eta 15:00-19:00
Bariquetan: 08:00-14:00

Getxo Bihotz-Handi odol emaileen elkarte

«Jende gaztea odola ematera animatu beharra dugu»

Ekainaren 14an, Munduko Odol-emaileen Egunean, 40-50 aldiz odola eman duten getxoztarrei omenaldia egin zien Bihotz-Handi elkarteak: 2 emakumeri eta 11 gizoni.



40-50 aldiz odola eman duten getxoztarrak omendu dituzte. © BIHOTZ-HANDI ELKARTEA

Azken urte bietan 40-50 aldiz odola eman duten 13 getxoztar omendu zituen Bihotz-Handi elkarteak joan den ekainaren 14an: 2 emakume eta 11 gizon. Urtez urte egiten duten ekitaldi hori, normalean, Bizkaiko odol-emaileak batuta egiten bada ere, COVID-19ak baldintzatutako egoera honetan posible ez dela ebatsi eta, aurten, Getxon egitea erabaki zuten antolatzaileek.

Elkarteko arduradunek azaldu dutenez, osasun-zerbitzuek gero eta odol gehiago behar dute, emanaldi bakoitzean ateratako odol-poltsa bakoitzetik hainbat «produktu» inportante lortzen direlako, hala nola hematieak, ebakuntzetan erabiltzen direnak; eta plaketak eta plasma, minbizi kasuatarako eta txertoak zein botikak egiteko beharrezkoak. «Gogoratu beharra dago odola ez dela fabrikatzen; ezin da. Bakarrik balio du gizakiak emandako odolak», ohartarazi dute. Hala, elkar-

tearen hasierako erronkari eutsita, emaile-kopurua handitu eta jende gaztea odola ematera animatzeko helburua jarri diote euren buruari. Are gehiago kontutan hartuta gaur egun odol-beharra handitu dela, batez ere minbizien tratamenduekin, transplanteekin (odol asko behar izaten dute), eta abar. «Medikuntza aurrera doa, eta, momentu honetan, plasmarekin lan handia egiteko asmotan dabilta Galdakaoko Transfusio eta Giza-Ehunen Euskal Zentroan», azaldu dutenez.

ZER EGIN ODOLA EMATEKO. Odola emateko behar dena da, hasteko, gura izatea. Gero, 18 eta 65 urte bitartekoa izan beharra dago. Odola ematerakoan, gainera, baraurik ez egotea beharrezkoa da, eta, noski, osasunez ondo egotea. Botikak hartzen dabilenen kasuan, aldeztu aurretik medikuarekin kontsulta egitea gomendatzen dute, «jakiteko gomendagarria duten edo ez». ◀

Erandio Pentsiodunen plataforma

Pentsio-sistema publiko duin baten alde mobilizatu dira

Pandemia aurretik astelehenero egiten zuten bezala, Uribe Kosta-Eskuinaldeko Pentsiodunen Plataformak manifestazioak egiteari ekin dio berriro. Lehenengoa joan den ekainaren 21ean egin zuten Erandion, eta 160 pertsona baino gehiago elkartu ziren bertan. Horiei, gainera, Plentzian elkartu ziren 28 lagunak batu behar zaizkie; izan ere, pandemiaren aurretik egiten zituzten eskualdeko mobilizazioak berreskuratzeko asmoa dutela iragarri dute plataformako kideek, «mehatxatzen gaituzten eraso sakonen aurrean», beste sektore batzuek indarrak elkartzeko.

Diotenez, «Espainiako Kongresuan Toledo-ko Itunaren gomendioak onartu ostean, pentsioen erreforma berria martxan» dagoela uste dute, beraz, ez zaizkie kalera ateratzeko arazoak falta. Momentuz, horren edukiaz ezer gutxi dakiten arren, egunotan prentsan argitaratu denaren arabera, ondorioztatu dute Espainiako Gobernua Europar Batasunagaz Berreskuratzeko Funtsek eskatzeko negoziatzen ari dela, eta, horregatik, baieztatu dute, «murrizketak jarraitu eta sakondu egingo direla». Horregaz batera, gaitzetsi dute Gobernuak ez duela agindutakoa bete, ez baititu indargabetu pentsio- eta lan-erreformak, besteak beste. ◀

Barrika Jon Rahm, txapeldun

Golf-jokalaria zoriondu du Udalak US Open-ean garaile izan ondoren

Jon Rahm golf-jokalaria barrikotzarrak US Opena irabazi du Torrey Pines golf-zelaian, San Diegon (Kalifornia). Hala, lehiaketa «handi» bat bereganatu du lehenengoz. Horixe da AEBetan jokatzen diren torneoetan ospetsuena, eta gazteak kolpe bakar bateko abantailagaz jantzi du txapela. Aurrekaririk gabeko garaipen hori dela eta, Barrikako Udalak zorionak eman gura izan dizkio auzokide ospetsuari, egindako lorpen handiagatik eta bere herria beti gogoan edukitzeagatik. Ildo horretan, Roberto Muñoz alkateak adierazi du barrikotzar guztiak harro egoteko modukoa dela, «eta zorionak eman eta poza agertu gura dugu gure herrikideak atzo lortutako garaipen handiagatik». ◀

Uribe Kosta Euskara sustatzeko estrategia 2021

Euskara suspertzeko plana agertu du Mankomunitateak

Euskararen komunitatea saretu eta eragile sozialen arteko elkarlana bultzatuz, euskara biziberritzeko estrategia aurkeztu du Uribe Kostako Mankomunitateak.

Euskararen olatuak Uribe Kosta osoa busti dezan, Mankomunitateak euskararen ezagutza eta erabilera sustatu eta bultzatzeko estrategia aurkeztu du. Egitasmo horren helburua da, eskualdea euskalduntzeko bidean, orain arteko estrategiak berrikustea eta garai berrietara egokitzea. Horretarako, adostasun zabal batean oinarritutako bultzada berriua eman gura diotela adierazi zuen Josu Landaluze Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko presidenteari egitasmoaren aurkezpen-egunean. Landaluzegaz batera egon ziren Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea, Lorea Bilbao Euskara Kultura eta Kirol saileko Foru Diputatua, Mankomunitatea osatzen duten zazpi udalerrietako alkateak eta eskualdeko hainbat eragile sozial.

Aurkezpen-ekitaldian azaldu zuten helburuek berritasunik izan ez arren, horiek lortzeko sortuko dituzten egiturazko baliabideek suposatuko dutela berrikuntza nagusia. Besteak beste, nabarmendu zuten euskara zerbitzutik koordinatuta egongo den eskualdeko dinamika integrala osatuko dutela, euskal-



Atxabiribil hondartzako begiratokian egin zuten ekimenaren aurkezpena. HODEI TORRES

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 1997tik darama martxan, eta, orduetik, eskualdeko herrietan itzulpengintza eta normalizazio alorreko hainbat proiektu inplementatu ditu.

tzaleen eta euskara eskuratu gura dutenen arteko sarea indartuko dutela, eragile sozialen eta politikoen arteko elkarlana bultzatuko dutela eta adin tarte eta sektore guztientzako ekimen eraginkorrak sortuko dituztela, besteak beste.

URIBE KOSTAN EUSKARAZ BLAI! Estrategia berria ez ezik, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak *Uribe Kostan Euskaraz Blai!* marka ere aurkeztu zuen ekitaldian. Esaldi horri esker identifikatuko dira, etorkizunean, hizkuntzaren inguruan gauzatuko dituen ekintzak. Horregaz batera, webgune bat ere sortuko dutela aurreratu zuten, helburua diren talde eta sarekideak harremanetan jartzeko. ◀

AEKn, UDA BATEK BIK BESTE BALIO DU

Euskara ikasi eta gozatu egingo duzu



2021 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



www.aek.eus
673 200 100 / 946 464 000



**UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK**

Matrikula epea: ekainean eta uztailan.

Leioa: 944 6460 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus

Uribe Kosta Jairik ez, baina hamaika kultura-ekitaldi

Jairik gabeko udaldian aspe

Uda honetan ere ez da herriko jairik egongo, baina, horren orde, udalek kultur-egitarau oparoa prestatu dute, aspertzeko aukerarik ez izateko. Hona hemen ekintzen aukeraketa bat.

Aurten ere ez da udako jairik egongo. Hala adierazi dute behin eta berriro hainbat udaletako ordezkariak. Baina horrek ez du esan gura uda honetan herriak basamortuak izango direnik, inondik inora ere. Musika, zirkua, antzerkia, aire zabaleko zinema... herrietako jaien antolatzaileak ez dira besoak gurutzatuta gelditu, eta egitarau oparoa prestatu dute. Hala ere, ez dira izurritearen aurreko jaien parekoak izango, eta udal askok iragarri dute osasun-neurriak betetzen jarraitu beharko dela, hala nola ekitaldietarako edukiera mugatua, distantzia-tartea mantendu beharra eta maskararen derrigorrezko erabilera.

Eskualdeko udalerrri askok ohiko jaieguna aukeratu dituzte ekintza gehienak egiteko, besteak beste, Berangon, Santa Ana eta Santo Domingo egunetan egingo dira ekintza esanguratsuenak. Gorlizen, aldiz, jarduera ugari egingo dituzte udan zehar, eta, uztailan, ia ez da egunik geratuko zereginik gabe. Sopelan bien arteko formatua aukeratu dute, eta udan zehar egiteko jarduera mordoa prestatu dituzten arren, Karmen jaientan batuko dira ekintzetako asko.

Bestalde, Getxon ezin zen falta Nazioarteko Paella Lehiaketa, nahiz eta aurtengo platerak streaming bidez dastatu beharko diren. Udalerriko jai-batzordeek, aldiz, unean-unean iragarriko dituzte zer sorpresa gorde dituzten jaiegunetarako.

Erandio eta beste herri batzuen kasuan, aldiz, udalen eta jai-batzordeen artean ekintzak egingo dituztela adostu duten arren, egoera aldakorra dela-eta, oraindino ez dituzte ekintza gehienak zehaztu. Hala ere, horien guztien berri emango dugu HIRUKA.eus atariko agendan, besteak beste. ◀

Egitaraua

BERANGO

Santa Anako jaiak

Uztailak 24, zapatua

12:30 Erik magoa, Santa Anako karpan.

19:30 Hippies and Folk, Santa Anako karpan.

Uztailak 25, domeka

12:30 Umeentzako obra: *Past&Co*, Santa Anako karpan.

19:30 *Heroínas, homenaje a las mujeres que cantan*, Santa Anako karpan.

Uztailak 26, astelehena

12:30 Los Tximberos, Santa Anako karpan.

19:30 *Como una cabra* umeentzako antzeria, Santa Anako karpan.

Santo Domingo jaiak

Uztailak 30, zapatua

12:30 Zirkugintza teatroa: *Zirkoteke*, eskolako karpan.

19:00 Boleroak, eskolako karpan.

Abuztuak 1, domeka

13:00 Txirri, Mirri eta Txiribiton, eskolako karpan.

19:00 *I feel good. Rhythm and blues*, eskolako karpan.

Guztia **50** **EKO***

Todo al **%** **DTO.***

General Optica

EHUko Bizkaiko Campus. Sarriena auzoa, z.g.
LEIOA Tel. 946051630

* kontsulta baldintza guztiak denden. * Consultar condiciones en tienda.

hamilton
IDIOMAS

Ikastolak
Enpresak
ENGLISH SATURDAY Play-School

INGELES ALEMANIERA FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Taldea txikiak
Inglaterran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

artzeko denborarik ez

Abuztuak 4, eguaztena

11:00-15:00 Umeentzako jarduerak, eskolako karpan.

19:30 *La carrocería*, eskolako karpan.

Abuztuak 5, eguena

12:30 Kuko truko eta Bolenwaider pailazoak, eskolako karpan.

19:00 Duo Still&cop musika pop, eskolako karpan.

▶ GETXO

Nazioarteko Paella Lehiaketa

Uztailak 25, domeka

12:00 Txalaparta deia eta aurrekua, *streaming* bidez.

12:15 Dantza emanaldia, *streaming* bidez.

13:30-15:00 Paellen argazkien aurkezpena, WhatsApp bidez.

▶ GORLIZ

Uztailak 24, zapatua

10:00-14:00 Artisautza, disko eta liburu azoka, Artzelu plazan.

Uztailak 30, barikua

12:00 Kontzertua: Urbil, Iker Lauroba eta Jon Gurrutxaga, elizako plazan.

▶ SOPELA

Larrabasterrako jaiak

Uztailak 15, eguena

12:00 Elder Magoaren ikuskizuna Iberrota plazan.

18:00 Boleros 4 taldearen kontzertua Iberrota plazan.

22:00 Alex O'Doghertyren Imbecil ikuskizuna ikuskizuna Urgitxeta plazan.

Uztailak 16, barikua

13:00 *Alma Bohemia* tango ikuskizuna Urgitxeta plazan.

18:00 *Antipasti* familia guztiarentzako zirku ikuskizuna Iberrota plazan.

22:00 Brodas Bros taldearen *Hipstory* dantza, Urgitxeta plazan.

Uztailak 17, zapatua

18:00 *Rock cirk* familia guztiarentzako musika eta zirku, Iberrotan.

22:00 ZETAK taldearen kontzertua Iberrota plazan.

Uztailak 18, domeka

18:00 Swingtronics taldearen musika ikuskizuna, Iberrota plazan.

20:00 *Gazte* antzerki eta dantza ikuskizuna, Urgitxeta plazan.

Uztailak 23, eguena

20:30 Folklore bizian jaialdia Urgitxeta plazan, Galdakaoko Andra Mari eta Peruko Ritmos y constumbres dantza taldeen eskutik.

Egitarau hau behin-behinekoa da; jaiak hurbildu ahala ekimen gehiagoren berri emango da HIRUKA.eus-en.



EROSKI center Gorliz
Pol. Sagastikoetxe, manzana 1
Tel. 946 774 101

EROSKI city Gorliz
Iberre Zeharbide, 1
Tel. 946 774 220

EROSKI city Plentzia
Areatza, 1 - Tel. 946 774 281

hiruka



Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaituzte gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Euskarari, atera kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Etxeko harremanak, gure berbekin emanak




Beste hizkuntzetan bezala, euskarak ere baditu bere esamoldeak etxeko eta senitarteko harremanak izendatzeko. Horien artean, badira zenbait hitz gure eskualdeko hizkeran bereizgarriak direnak. Zeintzuk diren jakin nahi?

Celangoa baysta amea, alangoa oy da alabea». Hala erakusten du atsotitz honek, etxean jasotakoa imitatzen dugula askotan. Ohikoa da gure artean tankerako esanahia duten esamoldeak entzutea, ezta? Bada, 1596. urtean jasotako atsotitza da hori. Bai, bostehun urte daramatzagu familia-ondareari garrantzia ematen, onerako zein txarrerako.

Egunero elkartzen gara gure senitartekoekin. Nik, ohetik jaiki eta komunera bidean, mutil gazte baten ahotsa entzuten nuen goize-ro, haurra nintzenean. Larritasunez gainezka banangoen ere, komuna hartuta zegoela esanez, atearen beste aldean egonazten ninduen. Uribe Kostan, amorruez beteta egonda ere maite dugun anaia horri, anaje esaten zaio.

Handitzen joan ginen heinean, komuna partekatzeari utzi genion, eta seme-alabak izan zituen nire anajek. Haiei, Bizkaia osoan bezala, lobe esaten diegu gurean ere. Gure hizkeran, beste hainbatetan gertatzen den bezala, hitz berbera erabiltzen dugu lobak eta bilobak izendatzeko. Hala ere, nahasketa edo gaizki-ulerturik egon ez dadin, argi utzi ohi dut bera nire loba dela, neu naizelako bere osabe. Bai! Asmatu duzu, hau da osabari deitzeko erabiltzen dugun aldaera.



Refranes y Sentencias 1596. urteko atsotitz bilduma da. Gai askoren artean, familia bizitzari buruzko esamoldeak jasotzen ditu, eta Iruñean argitaratu zen arren, badirudi Bilbo aldeko euskara arkaikoaren isla dela hori.

Bada hainbesteko sarritasunez ikusten ez dugun senide-taldea ere. Normalean, egun berezietan ikusten dugu elkar: Gorlizen, Santiago Egunean; Algortan, saninazioetan edo Gabonetan, nonahi. Horrelakoetan, mahaia- ren ertzean eserita topatzen dugu gure bikotekidearen ama, gure aube. Uribe Kostako hitz bereizgarria da amaginarreba izendatzeko erabiltzen dugun hori; aspaldi, Arratian, Busturialdean eta Aiaraldean ere erabili zen arren, gaur egun gurean erabiltzen da.

Zeinen ohituta gauden senideen arteko loturak izaten dituzten gorabeherak entzutera, zenbat istorio eta gertaera. Topiko bihurtze- ra ere heldu dira, bikotekidearen gurasoe- kin suñe eta erranek dituzten hartu emanak. Gure eskualdean, aube-erran izena eman genion aspaldi lotura hain esanguratsu horri, alegia, ama batek bere seme-alaben bikotekideekin duen harremanari. Pasadizo harrigarri eta ka- rikaturen ondorioz, tamalez, berebiziko bikote bilakatu da gure kontakizunetan.

Dena den, erabat zaharkitu zaizkigu klixe hauek, familia egiturak bezain anitzak baitira horien barneko harreman motak. Aldarrika di- tzagun aube-erran zoriontsuak, anaje eskuza- balak eta suñe alaiak. Har ditzagun gure ber- bak eta erabil ditzagun senitartean! ◀

EuskarAbentura
espedizioa

Jarraitu:

www.euskarabentura.eus

GetxoGaso

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



Hasi eta hazten jarraitu Nerea Garcia Liste

«Beti egin daiteke zeozer, batzuetan ez, baina bai»

Kirol esparru egokitu eta inklusiboan gabiltzan profesionalontzat, ikaskuntza-prozesua kirolariena bezain garrantzitsua da, nahiz eta sarritan zailtasunak izan. Hala ere, horrek hobetzeko aukerak ematen dizkigun heinean, imajinagaitzak zaizkigun gaitasunekin aurkitzen gara etengabe.

Denboraldi-itxiera ikaragarria izan dela sentitzen dugu: helburuak bete, hobetu eta berriak sortu ditugu gizartearen eskaerei erantzuten jarraitu ahal izateko. Haszten elkartaren aurrekariak ikusita, antzeman daiteke horren esku-hartze gehiena kirol egokituen esparruan dagoela, hau da, «berdinekin», edo desgaitasunak dituztenen artean egindako praktikan. Hala ere, badirudi gizarteak ez dituela inklusiorik gabeko jokalekuak guztiz ondo ikusten, eta, sarritan, «inklusioa» bezalako hitz potoloa zuzentasun politikoa besterik bilatzen ez dutenen ahotatik entzuten dugu. Aldiz, errealitatea askotarikoa da, ikuspuntu asko daude, eta, sarritan, parte hartzaileen pertzepzio eta sentsazioak kontuan hartzea ahazten zaigu.

Zer da inklusioa? Alegia, bakoitzarentzat kontzeptu desberdina izateaz gain, praktikan jartzerako orduan ere, bakoitzaren arabera, prozesua aldatzen da. Hau da gakoa: kirolari bakoitzaren gaitasun motor eta ezaugarri psikosozialen arabera, beharrezko egokitzapen bereizleak aurkitzea. Dena den, integrazio- eta inklusio-prozesua ondo egingo balitz, elkarbizitzaz hitz egiten ariko ginateke, beharrezko egokitzapenak nahi gabe egingo

Boccia, Grezia
Klasikoan jatorria
duen taktika
eta trebetasuna
konbinatzen duen
kirola praktikatzeko
duen batek esaten
zuen bezala,
«beti egin daiteke
zeozer, batzuetan
ez, baina bai».

genituzkeelako, eta, hortaz, ez genituzke parte hartzaile guztiak berdin tratatuko. Gainera, profesionalok konturatu beharko ginateke kirolariengandik ikasteko behar handiagoa dugula beraiek gugandik baino. Elkarteko kirolari batzuek esaten zuten bezala: «Kideen arteko desberdintasunek taldea aberasten dute, nork bere harri-koskorra ekartzen baitu». Hor ikus daiteke nola haien aniztasunean aberastasuna aurkitzen duten.

Hurrengo urteari begira, elkartean aurtun ereindako haziak zaintzea tokatzen zaigu, beti ere gure betiko gogo eta ilusioz eta taldearen elkarlanarekin; besteak beste, aurtun hasitako zahartze aktiborako lanbide tailerra edo HasztenTV istorioak kontatuz kirol egokituari eta inklusiboari ikusgarritasuna emateko proiektuari, hain zuzen ere.

Ez da esan gabe geratuko zein zaila den batzutan parte hartzaile guztiei profesionaltasunez erantzutea; monitore askok unibertsitate edo goi mailako graduatan formakuntza eskasa salatzen dute. Baina, gurean, esperientzia da prestakuntzarik onena, kirolari bakoitza mundu berri bat delako, eta egokitzapenak parte hartzaile bakoitzaren beharretara egokitu behar direlako, ahal den neurrian, noski. ◀



**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina - ALGORTA 944 307 696

Itñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45

Algorta

Tolletxe 1 94 460 27 41

Larrubizi Karlos Aretxabaleta *Txapel*

Zirri-mirriak

Poliki-poliki bularraldea igurzten hasi naiz, baina eskua alurantz eraman ahala, erabat desegin zait jela atzamar artean. Dagoeneko ez dakit nork busti dituen nire tolesturak, ziorik gabeko izotz-koskorak edo nire libido asegaitzak.



Bakarrik gaude aspaldiko partez, zu eta ni, ni eta zu. Ume txikiak etorri zirenetik elkarrekin egoteko tarreak aurkitzea kimera hutsa da, eta are zailagoa begitantzen zait tarte horietan bakarrik egotea. Zinez diotsut ezin ditudala zeure ferekak eta lastan gozoak burutik kendu, baina, azkenean, luzez itxaron behar izan ondoren, gaurkoan berriro elkar ikusi dugu.

Lo-kuluxkan harrapatu nauzu, terrazako sofán etzanda zurekin ametsetan; norekin bestela? Eguzki izpiek berotu dituzte noizbait nire ametsak eta nire bisaia, honezkero gorri egongo dena gogora ekarritako pentsamendu lizunengatik. Horrelakoetan ur apur batekin nahikoa izaten da beroaldia epeltzeko, eta nire zain hanpatuak baretzeko. Gaurkoan, ordea, urarekin ez da nahikoa izan, eta hozkailutik atera berri dudán izotz-puska bati zeregina aurkitu diot berehala. Poliki-poliki bularraldea igurzten hasi naiz, baina eskua alurantz eraman ahala, erabat desegin zait jela atzamar artean. Dagoeneko ez dakit nork busti dituen nire tolesturak, ziorik gabeko izotz-koskorak edo nire libido asegaitzak.

Horrelako batean, begiak zabaltu ditut eta aurrez aurre ikusi zaitut, mahai gainean jarrita niri begira, inolako lotsarik gabe. «Atzera?

Lo-kuluxkan harrapatu nauzu, terrazako sofán etzanda zurekin ametsetan; norekin bestela? Eguzki izpiek berotu dituzte noizbait nire ametsak eta nire bisaia, honezkero gorri egongo dena gogora ekarritako pentsamendu lizunengatik.

Lastana, aseezina zara», esan diot neure buruari. Irriño leloa eskaini dizut, baita konplizitate keinura ere; izan ere, eskaintzen didazun konpainiarekin, gutxienekoa da. Ez dugu denbora askorik, laster bueltatuko baitira umeak, bada, probestu dezagun abagunea eta izan gaitzen bihurri. Batek daki noiz egongo garen berriro lasai asko elkarrekin. Azkar, zazpi minutu ditugu! Bosgarrenez sentitu nahi zaitut nire barnean inolako gupidarik gabe, eta zeure klimax dardarek beste dimentsio batera eraman nazatela eskatzen dizut arren.

Burutik heldu dizut, eta, ohi bezala, be-larrietatik hasi zara, zirri-mirriak egitean kikildu gabe. Jarraian, beherantz jo duzu, denbora gutxi dugunaren jakitun, eta brastakoan, plazer-gosea medio, barru-barruraino sartu zara oldartuta, bat-bateko erantzuna nahiko bazenu bezala. Baina estasi hutsaren atarian nagoela, zeure indarra eta kemena sentitzeari utzi diot, eta, plazerak ihes egin dit ehizak harrapariari legez. Kaka zaharra, segituan gogoratu naiz ez nizekizula pilak aldatu bart gauean. Tamalez, handik eta minutu batera ume hotsak entzun ditut kalean gora, eta giltzapeko konfinamendura bidali behar izan zaitut berriro, gure hurrengo aukera noiz etorriko zain. ◀



AZEBARRI KULTUR ELKARTEA
Gozatu euskaraz!
Ekitaldi kulturalak, hitzaldiak, tailerrak, antzerkiak...
Txokoa berriro zabalik!



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!!
azebarri@gmail.com



aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Aldai

Zinemaz bizi Iñigo Esteban Lezkano

Teknika edo funtsa

Film gutxi izaten dira perfektuak: batzuetan, hausnarketara gonbidatzen duen istorio on bat kontatu nahi izaten dute zuzendariak; beste batzuetan, aldiz, ikuslea bisualki inspiratzea dute helburu, sortzailearen gaitasun teknikoa modu batean edo bestean erakutsiz.

Generoa ez da beti film batek definitzen duena, eta batekoa edo bestekoa izate hutsagatik ez ikusteak film handiak galtzea eragiten digu askotan. Merezi duten bi film hauen kasua da hori, zientzia-fikzio eta gerra-film baino gehiago baitira.

Lehenengoa *1917* da, gerran oinarritutako film bat, bai, baina horrek ez du esan nahi akzioa bakarrik ikusiko dugunik, hori atentzioa emango digunaren zati txiki bat baino ez delako. Berez, bi soldaduri misio bat egokitzen diete, inkomunikatuta dagoen batailoi aurreratu bati tranpa batera doazela jakinaraztea, hain zuzen ere. Horretarako, bi protagonistek etsaien lerroak gurutzatu beharko dute. Gaietik ikusita, beste gerra-film baten aurrean gaudela irudi luke, akzioarekin, emozioarekin eta abertzaletasunarekin jolasten duena; baina, behar bada, azken urteetako alarde tekniko handienetako baten aurrean gaude. Sam Mendes zuzendariak, oso istorio sinple batekin, inor axolagabe uzten ez duen filma garatzea lortu du.

Nabarmetzen den lehenengo gauza da Roger Deakinsen argazki zaindua, bisualki ezinbestekoa egiten duena. Azpimarratzekoa da ere plano sekuentzia batean grabatuta dagoela, digitalki faltsututakoa, baina oso



1917

Zuzendaria:
Sam Mendes



Vivarium

Zuzendaria:
Lorcan Finnegan



sinesgarria: travelling batzuk ditu trintxeretan barrena, barruan sentiarazten zaituenak, errealismo-maila ikaragarriarekin. Merezi al du istorio handia izateagatik? Agian ez, baina merezi du, bai, duda barik, hura ikustean sentiaraziko digunagatik.

Bigarren filma da Lorcan Finneganek idatzi eta zuzendutako *Vivarium*; kasu honetan, ares-tian aipatutako arrazoen kontrakoagatik merezi du. Zientzia fikzioan, ohituta gaude efektu berezi eta bisual handietara, hemen ikusiko ez duguna. Izan ere, etxe bat erosteko asmoz dagoen bikote gazte baten istorioarekin hasten den film xumea da. Etxe-agentzia batean sartzen dira, eta agente bitxi batek etxe bat ikustera joateko aukera ematen die, urbanizazio uniformeegi batean. Egia da filma zientzia fikzio gisa aurkezten dela, baina, funtsean, ez da hala. Agian, ikusten dena izango da, baina ez esaten diguna. Kapitalismoak ohitu gaituen erosotasun eta konformismoari egindako kritika gogorra da: zer gutxiarekin pozten garen eta, garaiz erreakzionatzen ez badugu, nola ez dugun atzera bueltarik izango.

Sakonean eta forman oso desberdinak diren bi film dira hauek; bata etorkizuneko zuzendarietako zine-ikasgaia da; bestea, aldiz, bizi garen munduaz ari da, ez dirudien arren. ◀

Getxophoto 2021

Iraila 02 → 26

GETXOPHOTO

ARGAZKIA
AIPAN, HIVEK

ANTOLATZAZILEA:

BEGIHANDI

BABESLE NAGUSIA:

Getxo
bizi erdian

BABESLEAK:

BIZKAIA
SABO PARRANDA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
GIZAKIA
GIZAKIA

Nazioarteko Irudi Jaialdia

www.getxophoto.com




RTIGUE *Un Sueño de Viaje*

Getxophoto, argazkiak partekatuz

Urte asko daramatza Getxophoto jaialdiak gure kaleak argazkilaritzaren erakusleihu bihurtzen. Ikusten duzuenez, instalazio eta modu oso ezberdinak ekarri dituzte urtez urte, baita ikuskizunak ere. Erakusketa-aretoak eta argazkiak konpartitzeko formatuak egokitzen joan dira herrian aldaketak egon ahala, eta, horrela, beti moldatzen jakin duen jaialdi bat da. «Partekatu» izango da aurtengo leloa, eta irailean ikusi ahal izango dituzue edizio berri honetako argazkiak udalerriko kaleetan.











Lehen/Orain **Plentzia, Ontziola plaza**



ITURRIA: SERRPAK



Uribitakora



TESTUA
Beñat Vidal

DOINUA
Euskal Herriko
lur maite hartan

ARGAZKIA
Hodei Torres

Denon kalte

Trakatan trostan hementxe nator,
gaur eguraldi bikaina!
Trakatan trostan, uda heldu da,
pinu hauek ze tamaina!
Trakatan trostan, kaka zaharra...
eguneroko ordaina...
Kakaz ederto ongarrituta
saïatzen gara gu baina,
guk gura bezain arin ez da ba
biguntzen hemen lur gaina.

Bakean geunden egun batean,
bakea kolpez lehertu,
zarata baten iritsi ziren
hainbat makina ugertu.
Harri-txintxar hau hiru egunez
botaz ez ziren aspertu,
lurra antzutu ziguten eta
ez dira berriz agertu.
Baina zertara etorri ziren
ezin dut ondo ulertu.

Onik ez diot baina ikusten,
guzti hau da denon kalte.
Lehen belardi bakarra zena,
orain bi eta aparte.
Baina oraindik da inguru hau
nire etxe, nire parte;
bihar berriro etorriko naiz
nire apatxak bitarte.
Kaka egiten jarraituko dut
belarra hazten den arte.

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Gidabaimena euskaraz



«Udalaren dirulaguntza bultzada handia izan da niretzat»

ANDER ANDIKOETXEA
Getxo

«Ikasketak euskaraz egin ditudanez, erraza izan da liburua eta testak ulertzea»

JUNE GALLASTEGI
Getxo

«Gidabaimena euskaraz ateratzea ez da esaten duten bezain zaila»

GAIZKA OSTAIKOETXEA
Getxo

«Euskara gozatu, euskaraz gidatuz!»

IBAI HERNÁNDEZ
Erandio

«Euskaraz bizi eta bidaiatu»

NAHIA VALLADARES
Erandio



Orain da momentua!

APROBETXATU UDA...

Getxon edo Erandion errolatuta bazaude eta **17-23 urte bitartekoa** bazara, Getxoko eta Erandioko Udalek gidabaimena euskaraz ateratzeagatik:

100 euroko DIRULAGUNTZA EMANGO DIZUTE!

Eta gainera...

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten herriko ikasleen artean **100 euroko erregai-txartelen zozketa egingo dugu.**



Getxo
bizi ezazu



E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO



Erandio
HIRI
HEZITZAILEA

ALKARBIDE
Bilakaia Barakaldo Zuzendaritza Nagusia

Bizkaia
foru alandua
diputación foral

EUDEL
ERANDIO UDALAK ELABORATUTAKO
ERREGAI-TXARTELAK



Zuhaitz Gurrutxaga Telebista-aurkezlea eta futbolari ohia

«Umorea oso botika ona da arazoak erlatibizatzeke»

Besteak beste, futbol jokalaria ohia, telebista-aurkezlea eta bakarrizketaria izateagatik da ezaguna Zuhaitz Gurrutxaga. Herri Txiki Infernu Handi saioaren hurrengo denboraldia prestatzen ari den bitartean, umorearen argi-ilunetaz aritu gara beragaz; dioenez, umoreak asko lagundu dio bere bizitzan momentu gogorretan, edozein botika baino hobeagoa izan daitekeelako barrea.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **ZUHAITZ GURRUTXAGA ETA TXALO PRODUKZIOAK** ►

Askok Real Sociedad futbol-taldean jokatu duzulako edo telebistatik ezagutzen zaituzte, baina, azkenaldian, *FutbolisTOK* bakarrizketa egiten ari zara; alde berria al da? 2012an hasi nintzen nire lehendabiziko bakarrizketak edo monologoak egiten, haren izena *Futbolisto baten konfesioak* zen. Bizpahiru urtetan hainbat emanaldi egin nituen, eta, gero, bost urtez geldi egon naiz, bakarrizketak egin beharrean telebistako lanak egiten ETB1eko *Herri Txiki Infernu Handi* saiorako. Beraz, orain arte, aparkatuta neukan bakarrizketa-lana. 2020an aurkeztu nuen *FutbolisTOK* izena duen emanaldia, lehenago egin nuenaren jarraipena dena, eta, horregatik, izena ere hortik hartuta dago: *Futbolisto* hori lehendabiziko bakarrizketetatik hartu nuen, eta amaierako *TOK*, nahasmendu obsesibo-konpulsibotik dator, horri buruz ere hitz egiten dudalako; hitz-jokoa da.

TOK horren harira, joan den martxoan, *Ur Handitan* saioan konfesatu zenuen futboleko Lehenengo Mailan debutatu zenuenean bizi izan zenuen esperientzia gogorra. Hortik dator? Bai, bakarrizketa honetan, batez ere, kontatu nahi ditudan bizipenak dira Lehenengo Mailan jokatu nueneko egunetakoak; hiruzpalau denboraldiz egon nintzen, eta garai hartako bizipen asko ditut: futbol zelai barruan sentitzen nituenak edo alda-



gelan... Eta, oro har, futbolarekin oso lotuta dauden kontakizunak dira. Horrez gain, nahasmendu obsesibo-konpulsibo deitzen den bizipen, edo, hobeto esanda, gaitz hori pairatzen hasi nintzen, eta horren inguruan ere hitz egiten dut bakarrizketan. *Ur Handitan* saiorako egin nuen elkarrietzeta hartan zehatzago kontatu nuen zelako gauzak gertatzen zitzaizkidan; bakarrizketan gauza batzuk imajinaziorako uzten ditut, eta saiatzeko naiz umorearekin kontatzen bizitakoa. Baina, bai, egia da Lehenengo Mailan jokatzeko hasi nintzenean arazo hau pairatu nuela. Beti pentsatu izan dut barnean ere izango nuela txikitatik, baina futbol profesionalean hasi nintzean neukan presio horrek eragin zuzena izan zuen gaitz hau azaleratzeko orduan.

Dena den, zuk bizitako momentu gogor horiek umoreagaz ikustarazten dituzu. Horrek laguntzen du gairatzen? Kontatu dizudan guztia kontatzen dut monologoan, baina nik uste dut umorea jendearengana iristeko modu on bat ere dela. Beste aldetik, niretzako, umorea ere oso lagungarria izan da sufrimendua kudeatzeko orduan; sufrimendua diodanean esan nahi dut horrelako nahasmendu bat izatea oso astuna izan daitekeela, eta horretaz guztiaz barre egiteak, nire burua autorridikulizatuz, lagundu izan dit karga hori arintzen. Horregatik, erakutsi nahi dut eszenatoki gai-

nean zein garrantzitsua izan den nire buruaz barre egitea, eta hori guztia umorez hartzea. Beraz, esango nuke umorea oso botika ona dela arazoak relatibizatzen laguntzeko.

Beraz, bizitza umore gehiagoz hartu behar-ko genukela usten dutenetako bat zara? Uste dut asko lagundu ahal digula, bai. Askotan, gure buruari inportantzia gehiegi ematen diogu zerbaiti, eta, gero, horrek sortzen du antsietatea eta sufrimendua. Uste dut garrantzia gehiegi ematen diegula gure eguneroko drama txiki horiei, eta hori absurdoa dela ikusarazteko modurik onena horietaz barre egitea da. Gero, norbait galtzea bezalako tragediak ere daude bizitzan, eta horiek umorez hartzea ezinezkoa da, baina, azkenean, denborak buelta ematen die kontu horiei ere.

Horren gazte arrakasta izateak prezio bat ekarri zizula esango zenuke? Bai, futboleko 19 urterekin debutatu nuenean nahiko ospetsua egin nintzen, behintzat Gipuzkoan. Gero, nire gainbehera ere oso denbora laburrean gertatu zen: 24 urterekin Bigarren Mailara jokatzera pasatu nintzen; hortik aurrera, ezezagunagoa izaten joan nintzen, eta esango nuke ez nuela oso ondo eraman bat-batean ezezaguna bilakatu izana, nahiz eta jendeak kalean maitasuna adierazi. Askotan pentsatu dut oholtzara salto egin nuela maitasun horren bila.

Orain, futbola utzi eta 20 urte beranduago, izarren eta fokuen atzetik pertsonak ere daudela gogoratzeko ere egiten duzu bakarriketa? Bai, hala da. Lehenengo Mailan nengoen garaian, konturatu nintzen nahiko mundu hermetikoa dela, kanpotik zein barrutik: futbolari profesionalengandik beti esaten da hiruzpalau esaldi bakarrik esaten dituztela, elkarriketetan ez dutela asko sakontzen eta, askotan, pentsatzen dugu zozoak direla, ez dutela gehiago hitz egiten ez dutelako gaitasunik. Halakoak egongo dira, beste edozein lanbidetan bezala, baina nire sententzia da gai nagusietatik ateratzen bazara, litekeena dela hurrengo egunean titular guztietan agertzea. Jendeak pasio eta seriotasun handiarekin bizitzen du futbola, eta jokalariek saiatzen gara ahalik eta gutxien kontatzen, inork ez duelako nahi futbola ez den beste gauza batengatik agertu titularretan. Beraz, horregatik ixten da horrenbeste mundu hori. Orain, hainbeste denbora pasata, nik banuen gogoan benetan zer sentitzen nuen kontatzeko, eta adierazteko hor atzean pertsonak ere daudela beste edonork izan ditzakeen beldur eta sufrimendu berdinekin.



Zazpi denboraldi daramatzate elkarregaz Pagadizabalek eta Gurrutxagak.

Herri Txiki Infernu Handi

«Hasieran, hamar saio egiteko helburua genuen eta, dagoeneko, 175etik gora programa eta herri egin ditugu. Telebista munduan hori ez da normalena, baina, zorionez, guri egokitu zaigu, eta pozik gaude»

Azken urteotan Mikel Pagadizabalek batera aritu zara Herri Txiki Infernu Handi saioan, zenbat urte darozue elkarregaz?

Zazpigarren denboraldia bukatzen gabiltza orain, eta, gauzak ondo badoaz, laster zortzigarrenarekin hasiko gara. Hasi ginean nork esango zigun honaino helduko ginela, ez baita lan erraza, kasu honetan, audientziek agintzen baitute. Hasieran hamar saio egiteko helburua genuen, eta, dagoeneko, 175etik gora programa eta herri egin ditugu. Oraindik ere, zazpi denboraldi egin eta gero, harrigarria da audientziak ikusten jarraitzea; telebistan hori ez da normalena, baina, zorionez, guri egokitu zaigu, eta pozik gaude igandero jendearen maitasuna jasotzen jarraitzen dugulako.

Futbol profesionalaren hermetismoa

«Futbolari profesionalengandik beti esaten da hiruzpalau esaldi bakarrik esaten dituztela, elkarriketetan ez dutela sakontzen eta, zozoak direla»

Formatuagaz asmatu duzue? Danimarkan sortutako formatu honek nahiko arrakasta izan zuen, eta Katalunian ere errepikatu zuten, arrakasta izugarriarekin. Zortzigarren denboraldiari helduta, esan dezakegu guk ere arrakasta puntua lortu dugula. Horren meritu handi bat formatua bera da: herrian egiten ditugu elkarriketak, eta, gero, denen aurrean ematen ditugunean, herriko plazan edo frontoian, bigarren zati horrek ematen dio plus handi bat saioari, bestela elkarriketa kromoak izango ziren, beste hainbat programa bezala.

Horrek guztiak Gabonetako bereziak egitera ere eraman zaituzte. Telebistan hasi zinean horretara helduko zinela espero zenuen?

Nahiko anekdotikoa da, baina azken bost urteetan kanpaikadak eman ditugu gabon zahar gauean, eta egia da denok sumatu dugula telebistan kanpaik emateak bere garrantzia duela. Gainera, badirudi telebista-kate horretan ondo aritu diren aurkezleei opari bat ematea bezalako dela hori. Telebistan egonda, gau-



Ramon Agirre eta Joseba Apaolazagaz batera *Konpromisoa* antzezlanarekin egin du Gurrutxagak.

za bitxia gertatu da: EITBk, lehen, grabatuta ematen zituen kanpaiak, baina guri proposamena heldu zitzaigunean, geuk zuzenean egiteko aukera planteatu genuen. Zorionez, baietz esan ziguten, eta Sara Gandara, Mikel eta hirurok aritu gara. Asteetako lana da 15 minutuko saioa egiteko, baina, bai, saioa errekonozimendu bat bezala hartzen dugu.

Horretaz guztiaz gainera, Vanpopel taldearen sortzaileetako bat zara. Jarraitzen duzue? Ez, jada ez dugu jotzen, baina honen guztiaren hasiera, agertoki batera igo nintzen lehen aldia, hain zuzen ere, Vanpopel taldeari esker izan zen. Pop taldea sortu nuen, eta orain baino lotsagabeagoa nintzen: lau akorde besterik ez nekizkien, eta kontzertuak ematen hasi nintzen. Hortik etorri zen bakarrizketa eta antzerkia. Hala ere, bizitzan gaitasun kontuagatik zerbait utzi behar izan badut, hori musika izan da; ez neukan bizimodua aurrera ateratzeko moduko gaitasunik.

Futbola, musika, telebista, bakarrizketak... Ligatzeko tresna baino gehiago, ikuskizuna bizimodu bilakatu duzu, ezta? Beti erdi brometan eta erdi serio esan dut fokuek ligatzen laguntzen dutela. Hala ere, beti galdetu izan diot nire buruari ez ote dudan fokuen beharra; futbola utzi eta berriro ere publikoaren aurrean jartzeko beharra izan nuen. Ondo pentsatuta, ez dakit hain ideia erromantikoa ote den erantzuna, seguruenik maitasun behar horrek bultzatu ninduelako berriro oholtzara igotzera, eta ondo analizatuz gero, seguru nago erantzuna ez dela hain erromantikoa. Baina, zorionez, bide horretan nire burua ezagutzeko aukera izan dut, eta neure benetako lekua aurkitzeko zortea izan

Umorearen argi-ilunak

«Umoristek ere atzetik badute mundu bat, askotan ez dena horren polita eta barregarria. Mundu horretako jende gehiago ezagutu ahala, konturatu naiz badituztela barregarriak ez diren gauzak ere»

dut. Orain, eroso sentitzen naiz, bai telebistan baita oholtza gainean ere.

Umorista izateko, gogoeta nahiko serioak egin dituzu, ez ahal zaizu iruditzen? Umorista bat elkarrizketatzen dutenean badirudi rol horretan jarraitu behar duela, elkarrizketa eta dioen guztia umorezkoa izaten jarraitu behar duela, alegia; barre egitea bakarrik dela bere lana. Baina umoristek ere badute mundu bat atzetik, askotan ez dena horren polita eta barregarria. Garai batean esaten zen pailazo tristearekin gogoratzen naiz kasuotan; izan ere, umorearen munduan dagoen jende gehiago ezagututa, konturatzen naiz badituztela horren barregarriak ez diren gauzak, eta askotan depresioak eta nahasmendu arazoak egoten dira atzetik. Hau da, umorea botika moduan erabiltzen dute aukera bezala, beste alde ilun batzuetatik salbatzeko. Horregatik uste dut umoretik harago, elkarrizketa sakona ere egin daitekeela. Esango nuke atzetik ezkutatuta dauden gauza ez hain argitsuei buelta emateko erabiltzen dugula umorea. Gainera, zure porrot bat modu dramatikoan kontatzen baduzu, badirudi geroz eta pisu gehiago bereganatzen duela. Hori bera umorez kontatuz gero, aldiz, nahiz eta sufritzen egon, zure buruari barre eginez erlatibizatu eta pisua galtzen du. Ez diot gure kontuez barre egin behar dugunik, baina giltza edo mekanismo hori izatea ondo dator.

Bizitako gorabeherak heldutasun emozional batera eraman zaituztela uste duzu? Bai, hala da. Eta trastorno psikologiko batengatik psikologoetara eta ibili eta gero, gertatzen zaidana ikertzen jarrita, konturatu naiz niri gertatu zaidana ez dela gauza subjektibo bat, objektibo baizik. Beraz, nire burua ere zaindu beharra daukat, eta horrek orain arte egindako ibilbide guztiaren hausnarke-ta kontziente bat egitera ere narama. ◀



Itsasargiek gidatutako zeharkaldia



© ESTITU ORTOLAIZ

HONDARRIBIA. III. Gerra Karlistan erabat suntsitu zuten arren, 1876an guztiz berreraikitzeari ekin zioten, Higerreko lurmuturrean.

Euskal kostaldeak 150 kilometroko luzera du, eta, tarte horretan, ia 20 itsasargi topa daitezke. Ezohiko bigarren uda honetan, herrigune, lurmutur eta portuetan itsatsitako faroak ezagutzeko ihesaldia dugu hau, Getxotik hasita, Gorniz, Lekeitio, Pasaia eta Hondarribian murgiltzeko.

Itsasoko nabigazioan laguntzeko eta ontziak bideratzeko argidun seinalez-tapen-dorreak dira itsasargiak. Mende mendeko, marinelak kostaldeko argi horiei so egon dira, izpi horiek lehorreratzeko bidea erakusten baitzieten; babestokirako buelta, etxeratzeko aukera, itsaso zabaleko arriskuetatik eta iluntasunetik asago. Gaur egun, COVID-19aren pandemia garaitzeko argi-printzak ikusten hasiak gara, eta kalera ateratzeko eta gure bazterrez disfrutatzen auzera dugu orain, inoiz baino gehiago. Euskal kostaldeak ia 20 itsasargi ditu, Zierbenatik hasita, mendebaldean, Angelura, ekialdean. 150 kilometroko tarte horretan, kresalak bustitako hamaika herri topa ditzakegu; den-denak eza-gutzen dituzu? Hala ez bada, hona hemen uda honetan horietako batzuk bisitatzen plan-proposamena: Getxotik hasita, Hondarribia.

20

itsasargi daude gure kostaldean, Zierbenatik hasita, mendebaldean, Angelura arte, ekialdean.

150

kilometro ditu euskal kostaldeak alderik alde; tarte horretan, hamaika herri eta portu topa daitezke; denak ezagutzen dituzu?

Bidean, Gorniz, Lekeitio eta Pasaia ezagutzeko parada izango duzue; ez galdu aukera!

ITSASARGIEN KOSTALDEAN TXONBO EGIN.

Mendebaldetik hasita, Getxon, Neguriko jau-regien inguruan zein Galeako lurmuturreko paisaia murgilduta topa ditzakegu udalerriko hiru itsasargiak. Alderik alde, hondartzak, Portu Zaharra eta bestelako txoko esanguratsuez goza daiteke bertan. Gorniz dugu bigarren geraldakua; bunkerren goialdean eraikitako faroaz gainera, Andra Mari baseliza bisita daiteke; lekukoek diotenez, bertan suak egiten ziren antzina itsasgizonak lurreratzen laguntzeko.

Bizkaian ekialderago mugituta, Lekeitiora gerturatuko gara. Bertan, ikusten dena baino askoz gehiagoz gozatzeko tarte izango dugu: Lekeitio Route aplikazioaren bitartez, bata bestearen atzetik, txoko eta leku esangura-

PASAIA

Lucretia belaontzi klasikoan itsas-bidaia egiteko proposamena dakar udalerrri honek; Donostiatik Pasaia Albaola Itsas Faktoriara bisita barne.



©JULEN SANCHEZ@JULENTO

LEKEITIO

Haren inguruan daude Santa Katalina basiliza eta Antzozizko kobak, Santa Katalinako aztarnategi arkeologikoa duela, besteak beste.



© INAKI ONATE

tsuenak ezagutuko ditugu: elizak, jauregiak, dorretxeak... Horrez gainera, naturaz gozatzeko Lumentza mendia igo ahalko dugu, puntatik, Lekeitioko panoramika ederraz disfrutatzeko; eta, nola ez, ez ahaztu badia erdigunean dagoen Garraitx uhartera ihesaldia egitea.

Azkenik, Gipuzkoan, Lucretia belaontzian Donostiatik Pasaia itsas-bidaia egin ondoren, Mater Ontzi Museo Ekoaktibora bisita egin eta San Pedro eta Donibane alde zaharrak ikusiko ditugu, badiaren alde bietan, Hondarribira salto egin aurretik. Historiaz, naturaz eta askotarikoez gozatzeko parada dugu hori, non erdigunean, kalerik kale, jauregi dotoreak ikusiko ditugun Arma Plazako Karlos V.a gazteluaren inguruan. Era berean, Jaizkibelgo eraketa geologikoez eta Jaitzubiako padurek naturan murgiltzeko aukera emango digute, besteak beste. Zeren zain zaude?

Uribe Kostako itsasargiak

GETXO

Bazenekien Getxo dela Euskal Herrian itsasargi gehien dituen udalerria? Bada, hiru ditu: Galeakoa, lurmuturrean, 84 metroko altueran; eta Arriluzeko biak, barnekoa eta kanpokoak.



GORLIZ

Billano lurmuturrean kokatuta, Euskal Herriko itsasargirik berriena da; 1990ean eraiki zuten, Gerra Zibilaren ostean eraikitako kanoi eta bunker sarearen tunel baten gainean.



Iñaki Saitua Kultura programatzailea eta Getxo Jazzeko zuzendaria

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiak itzulera arrakastatsua izan du bere 44. edizioan

ANDER ZARRAGA ▶

Jorge Pardo, Tino di Geraldo eta Carles Benavent hirukotearen jazz-flamenko fusioak, Niño Joselaren gitarragaz batera, itxi zuten Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 44. edizioa. Horien aurretik, beste 17 taldek emanaldiak egin zituzten ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean.

Iñaki Saitua Getxoko Udaleko kultura programatzaileak eta Getxo Jazzeko zuzendariak azaldu du izurriteak ezarritako osasun-neurrietara egokitu behar izan dutela aurtengo programa, iazko jaialdia bertan behera geratu ondoren; hala ere, nabarmendu du oro har pozik daudela emaitzagaz: «Balantze baikorra egiten dugu publikoak ondo erantzun duelako eta kritikak ere oso onak izan direlako». Bestalde, azpimarratu du aurtengo jaialdian musikari-gazteen eta emakumeen presentzia ere nabarmena izateko helburua bete dutela.

Mugikortasun-murritzaketak direla eta, aurren ez da AEBtako talde ospetsurik egon, hala ere, inguruko musikari esanguratsuak ekartzeko ahalegina egin dute, «jaialdiaren kalitatea mantenduz». Horien artean egon dira Maria João - Carlos Bica Quartet portugaldarrak, eta The Cuban Jazz Syndicate, Espainian bizi diren musikari kubatar onenetakoei osatutako boskotea. Besteak beste, Chano Domínguez eta Martiriok kopia klasikoan jazz-moldaketak ikusleak liluratu zituzten.

Saituak dio formatua ere moldatu behar izan dutela aurren: «Taldea Lehiaketako emanaldiak goizeko ordutegian egin dira; on-

**Emma Nagy Quintet, Hungariako talde gaztearen kontzertua. GETXO KULTUR ETXEA**

«Balantze positiboa egiten dugu, garrantzitsuena jaialdia aurrera ateratzea zen, eta lortu dugu»

IÑAKI SAITUA
GETXO JAZZEKO ZUZENDARIA

dorioz, jende gutxiago bertaratu den arren, garrantzitsuena aurrera ateratzea zen». Bestalde Bihotz Alai plazan egindako emanaldiek oso harrera ona izan dute, eta Muxikabarrin egin diren emanaldi nagusietarako sarrera guztiak saldu dituztela dio Saituak.

Talde Lehiaketari dagokionez, Michelangelo Scandroglio Quintet talde italiarrak bereganatu du aurtengo epaimahaiaren saria. Bigarrenak izan dira Víctor Jiménez & Friends, eta talde bereko Andreu Pitarch bateria-jolea izendatu dute instrumentista onena.

Emanaldiak bukatuta, Jorge Lopez de Gueñu margolariaren erakusketak ikusgai jarraituko du Romo Kultur Etxean, uztailaren 23ra arte. *No Silence, No End* izenburupean, hainbat urtetan jazzaren inguruan egindako margolanak bildu ditu bertan. ◀

Betidanik
haur eta gazte
literaturan

murgilduta!

ibaizabal
www.ibaizabal.com

Rosa Rubio Poesia idazle urduliztarra

«Poesia ez da desagertuko, eboluzio prozesu batean dago, bide berrien bila»

ANDER ZARRAGA ►

Rosa Rubio poeta urduliztarrak *Villa de Pasaia-Altamira Puente* 2020 sariari esker argitaratu du *Quién anda en la playa* poesia-liburua. Gainera, orain gutxi, poesiari, emakumeari eta errealitate sozialari buruzko hitzaldia eman du Inola elkartearen egoitzan. Bere lanaz eta poesiaren munduaz hausnartu dugu beragaz.

Nolakoa da idazten duzun poesia? Uste dut poeta orok duela bere ahotsagaz barruan duena adierazteko beharra, horregatik, niri buruz eta arduratzen zaizkidan gauzei buruz idazten dut. Poesiak balio du gizakia gizaki izaten jarraitzeko, eta, hori dela eta, esaten dut poesia oso gizatiarra dela, zer garen gogorazten gaituelako. Liburuaren prologoa idatzi duen Elena Romanek dioen moduan: «Jakín ezazue nitaz, jakín ezazue munduaz». Beraz, esan dezaket nik nire munduaz idazten dudala.

Zer suposat du zuretzako saria irabazteak? Isilune bat apurtzearen modukoa izan da. Esan dezaket hondoratuta nengoela, eta, urteetan idatzi gabe egon ondoren, berriro hasi nintzenean, jendeak animatu ninduen lehia-keta horretara aurkeztera.

Zeintzuk dira zure inspirazio iturriak? Emerzonek esaten zuen moduan: «Poetek munduari egia bat ekarri gura diote». Niri errealitate sozialek asko hunkitzen naute, eta, horregatik, berriz ere idazten hasi nintzen Siria-



Rosa Rubioren lehen poesia liburua *El título de la luna* (1991) izan zen. HODEI TORRES

Nolako poesia idazten dute emakumeek?

Nik uste dut emakumeek munduan gure arrastoa uzteko behar handia dugula nonbait, askotan isilduak izan garelako, nahiz eta badirudi gure lekura bueltatzen eta ahotsa berreskuratzen ari garen. Jendeari gomendatuko nioke Elena Roman, Angela Figuera edo Natalia Sosa bezalako idazleak irakurtzea, emakumeei ahots hori bueltatzeko.

ko errefuxiatuen harira; hondartzan Aylan umearen argazkiak asko hunkitu ninduen, eta islatu gura izan nuen errealitate hori nola barreiatzen den gure bizitzetan. Bestalde, nire bizitzan eragiten nauten kontuez ere idazten dut.

Ados zaude poesia gainbeheran dagoela esaten dutenakaz? Poesia apur bat ahaztuta dago, eta egia da ez dela gehiegi irakurtzen. Desagertuko dela eman arren ez dut uste horrela izango denik. Baina berreskuratu behar dugu, eta, gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da. Esango nuke poesia eboluzio prozesu batean dagoela, bide berrien bila, eraldaketa prozesuan. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

AINGARA

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Uda ona pasa eta zaindu!

944 038 953
Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo - GETXO
www.bordadosaingara.com

Aisialdiaren kutxa **Adur rol-jokoa**


Nafarroako Erresuman kokatutako euskarazko rol-jokoa sortu dute

IKER RINCON MORENO ▶

Ez dira asko euskarazko rol-jokoak, baina gero eta zale gehiago batzen hasi dira horien inguruan. Orain urte bi, orriotara ekarri genuen Atopia RPG, eta, oraingoa, Adur aurkezteko txanda heldu da. Sortzaileek azaldu dutenez, aurrez aurre jolas daiteke, baita online bidez ere. Euskal Herriko Erdi Aroan girotuta dago jokoa, Nafarroako Erresuman, hain zuzen ere, baina izaki mitologikoez inguratuta. Hala, lamiak, basajaunak, jentilak eta beste hainbat izaki gorpuztuko dituzte jokalariek, erronkei aurre egiteko.

Adur rol-jokoa martxan jartzeko, Itsulapikoa.eus-en ekarpenak egiteko kanpaina abiatu zuten arduradunek maiatzaren 21ean, ekaina osoan martxan egon dena, eta, denbora gutxian, 4.000 euro inguru eskuratu dute -2.000 euro izan da proiektua gauzatzeko jarri duten minimoa-.

Arau errazak ditu, edozein adineko jokalariek jolastu dezakete, eta rolean adituak zein hasiberriak direnentzat egokia da. Jokoa taldean jolasten da, 3-6 lagunen artean. Ohi bezala, jokalaria batek Gidariaren lana egingo du, eta besteek asmatutako pertsonaiak irudikatuko dituzte, askotariko istorioak sortuz.



Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Kontuz ezezagunek emandako aholkuakaz, entzun eta neurtu itzazu. Inorengan eraginik ez izatea komeni da.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Gauzak zuzenean esan, eta oztopo bat baino gehiago ezabatuko dituzu; irmotasuna eta erabakia dira zure giltzak.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure abentura-izpiritua areagotu egingo da eta mundua jateko gogoz sentituko zara. Horretara iritsiko zara, ez izan zalantzarik!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ez duzu garairik onena maila fisikoan; konfinamenduko gehiegikeriek faktura pasa dizute. Baina egon lasai, laster osatuko zara, animatu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Egoera tarteko, udaldi aproposa izango da maiatasun bizia lortzeko. Oso gau sutsuak izango dituzu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Oso aktibo eta intentzio onez beterik sentituko zara egunotan. Zaindu maite duzun hori, bueltan etorriko zaizu-eta.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ondo pasatzeak eta kontrol ezak ez diote inori kalterik egiten, beraz, ez begiratu erlojuari. Hori bai, ez utzi biharko gaur egin dezakezuna.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Osasuntsu egoteko, naturagaz harremanetan jarri behar zara, ondo sentituko zara. Aprobetxatu denbora libre eta egin ezazu ihesaldiren bat.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Kontrola itzazu zure nagusitasun-itxurak, edo gehien maite dituzun pertsonen aurre egingo diezu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Saia zaitez gauza zehatzetan denbora gehiago inbertitzen, eta ez utzi pentsamendu utopikoek zeure burua eramaten, ala bai.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Dena ondo dagoenean agertu behar da betiko morroi hori, zuk zein den ondotox jakin badaki-zuna. Ohi legez, izorratzeko dator, noski.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Udan sartu gara, eta oraindino edredoi nordikoagaz egiten duzu lo. Ez al da freskoago lo egiteko garaia?



Testulariak

Testulari berba ezagutzen ez baduzu, 'idazle' hitzaren sinonimoa-edo dela pentsatuko duzu, gaur egun 'testu' **elea**, oro har, idatzizko testuinguruarekin erlazionatzen dugulako. Baina **testulari** terminoak, idatzizkoarekin barik, ahokoarekin dauka lotura. Hona hemen Euskaltzaindiaren definizioa: «esaldi errimatuak egitea atsegin duen pertsona». **Ditxolari** dakar sinonimotzat: «esaldi errimadunak, barre eragitekoak edo **ziria** sartzekoak **paratzen** dituen pertsona». Eta guk beste sinonimo bat ere ekarriko dugu lerrootara, gauza bera adierazteko: **zirtolaria**, hau da, **zirtoak** botatzen dituen. Eta zer dugu, bada, zirtoa? Bada, erantzun zorrotza eta errimaduna.

«Orduan testularia bertsolaria da», pentsatuko du bat edo batek. Andoni Egañak azaltzen digu bien arteko aldea *Hogeitabina* bere liburuan, esanez bertsolariak diskurtsoa eraiki egin behar duela bertsoaren baitan, eta testulariak, berriz, aski duela bere jarduna azken kolpera mugatzea. Kasurako, Fredi Paiak *Uribe Kostako bertsolaritza* (1900-1980) liburuan adibide ederrak dakartzkigu. Etxebarrieta delako testulari armintzar batek **txikota** jaurti omen zion portuan zegoen arrantzale bati, honako zirto hau botaz batera: «Hi, amarraik txikota hor harrin, ostantzen heure garrin!» (hi, amarra ezak txikota hor harrian, **ostantzean**, heure gerrian). Azalpen eta argibide gehiago dakar Frediren liburuak, uribekostar guztiontzat guztiz gomendagarria den liburuak, **bibenabar**.

Egia aitortzekotan, Fredik elkarrizketaturiko **lekukoen** arabera, testularia erdi-bertsolaria litzateke, hau da, bertsolariaren mailara iristen ez dena. Baina egia osoa esatekotan, denok egiten dugu barre testularien ateraldi zorrotz edota irudimen handikoekin. Agian zeu ere izan zintezke testulari. Edo ez duzu inoiz izan tentazioa, norbaitek esandako zerbaiti erantzun errimatu emateko? Eta ez badut nahi? Saiatu lasai! Ez esan berriro. Zurekin ez da giro! Isiltzeko ba! Baduzu denbora! Kar-kar-kar. ◀



Berba azoka

Ele

Hitza, berba; hizketa edo berriketa ere adieraz dezake.

Testulari

Esaldi errimatuak egitea atsegin duen pertsona. Sinonimoak: ditxolari, zirtolari. Uribe Kostan *testolari* esaten da.

Ditxolari

Esaldi errimadunak, barre eragitekoak edo ziria sartzekoak paratzen dituen pertsona. Sinonimoak: testulari, zirtolari. Xalbador bertsolariak *Odolaren mintzoa* bere liburuan aipamen argigarria damaigu: «Dohain hori duena titxolaria deitzen dugu guk hemen. Horieri, zuk hitz bat atera orduko, burrustan heldu zaizkiote hura iduriak gogorat».

Ziria

Hemen adarjotzea.

Paratu

Hemen jarri, bota.

Zirtolari

Zirtoak botatzen dituen. Sinonimoak: testulari, ditxolari.

Zirto

Erantzun zorrotza eta errimaduna.

Txikot

Soka lodia, bereziki itsasontzietakoa.

Ostantzean

Hemen bestela; gainerakoan ere adieraz dezake.

Bidenabar

Bide batez.

Lekuko

Hemen informatzailea, zerbaiten berri ematen duena.

Argazkien elementuak nola antolatu

Bertikala ala horizontala? Hiru elementu nagusi ala erritmo bat?
Argazkietan agertzen diren elementu ezberdinen garrantziaz eta haien kokapenaz arituko gara oraingoan.

Nola irakurtzen ditugu irudiak?

Argazkiak ezkerretik eskumara eta goitik behera ikusten ditugu, liburu bat irakurtzen dugun moduan, baina askoz azkarrago: segundo batean irudi osoa ikusteko gai gara. Ondoren, detaileak eta bestelakoak lasaiago irakurtzen arituko gara, baina lehenengo begiradan konposaketak garrantzi handia du. Horregatik saiatuko gara konposaketaren oinarriak azaltzen.

Formatuak

Gure irudiak egiterakoan, formatua da aukeratu behar dugun lehenengo gauza; bertikala ala horizontala egitea ez da berdina, edo formatu karratua ala panoramikoa erabiltzen badugu.

Horizontala:

Formatu estandarra bezala ulertzen duguna da, gure begiradarekin lotzen baitugu. Horizontarekin oso ondo egokitzen den formatua da, lasaitasuna eta espazioak transmititzeko egokia. Altuera murrizta izanda, behartzen gaitu elementuak ezkerretik eskuinera edo alderantziz sekuentzian antolatzea, gure pertzepzio naturala indartuz.



Panoramikoa:

Oso egokiak dira paisaiarentzat: ezkerretik eskuinerako ikuspegiaren ibilbide ziklikoak irudiarekiko interesa pizten du. Espazio zabalak edo muntaia egiteko egokia da ere.



Bertikala:

Grabitateari buruz dugun pertzepzioak eragina du formatu honetan: beheko aldean «oinarri» gisa hartzen dugu, eta sarritan elementu astunenak beheko erdian kokatzera bultzatzen gaitu. Pertsonak, zuhaitzak edo bestelako elementu bertikalak ondo egokitzen dira, eta aldizkari edo posterrak egiteko formatua da.



Karratua:

Karratua, berez, egonkorra da, eta oso ona da konposizio geometrikoekin jolasteko. Egokia da erdigunean kokatzeko gure elementu nagusia.

Herenen erregela

Erregela honen oinarria da irudi bat herenetan banatzea (horizontalki zein bertikalki); hala, bederatzi zati geratuko zaizkigu guztira. Elkarguneetan edo lerroetan zehar interesguneak jartzen baditugu, hartuko dugun argazkia orekatua izango da, eta ikusten duen orok modu naturalagoan elkar eragiteko aukera izango du.

Irudi batzuek herenen erregelaren puntu edo lerro bat baino gehiago erabiliko dute; beste batzuek, berriz, lerro edo puntu bakarra aplikatuko diote konposizioari, eta irudiaren beste elementu batzuk hondoan mantentzen utziko dute.



Horizontearen kokapena

Horizontea non kokatu oso garrantzitsua da, herenen erregela kontutan hartuz, goian, erdian edo behean jar daiteke. Zeruertzaren lerroa behe-herenean jartzen badugu, zeruak edo goiko aldeak indar handia izan beharko du. Zerua laua edo pobrea bada eta behealdeak garrantzi handiagoa badu, aldrebes egingo dugu, goi-herenean lerroa jarritz. Horizontea erdian jartzen dugunean, kontu handiz ibili behar dugu konposizioarekin, zailagoa baita.



Simetria

Simetria beti da atsegina ikusmenarentzat. Oreka perfektua sortzen da, irudiaren erdigunea erreferentetzat hartuta, eta pisu bisuala berdintasunez banatzen da irudian.



Detaleak

Xehetasunak erabili hondoa nabarmentzeko. Ikuspegiaren kontrastea lortu dezakegu, argazkiaren hondoa nabarmentzeko, lehen planoan detaile bat kokatuz.



Erritmoa, patroiak, lerroak...

Erritmoa esaten zaio elementu baten errepikapenari, elementu bat errepikatzen denean konposizioaren barruan, eta horren kokapenaren arabera, erritmoa lortuko dugu. Patroiak eta ehundurak ere atseginak dira gure burmuinean. Beraz, aprobeitza ditzakegu inguruko guztiak erabiliz. Loreen forma bezala, baldosak, alfonbra bat. Argazkiak egiteko oso elementu adierazgarriak izan daitezke. Lerroak ere oso lagungarriak izaten dira konposizio bitxiak egiteko: kableak, eraikinen ertzak edo errepede eta bideak erabili ditzakegu gure argazkietan lerroekin jolasteko.



Espazioaren araua

Argazkigintzan ezagunenetakoa da. Erritmo bat markatzen duen elementu bat badugu, begirada bat adibidez, edo mugitzen ari den objektu bat, elementu hori doan lekurantz espazio gehiago utzi behar dugu, bestela, konposizioan tentsio gehiegi sortuko da.



Arauk apurtuz!

Arau eta gomendio asko daude horietaz aparte. Informazio gehiago bilatu eta arau ezberdinak ezagutzeak asko lagunduko gaitu argazkien konposizioak hobetzen. Eta behin arau eta konposizioen elementuak ezagutzen ditugula, arauak apurtzeko prest egongo gara ere. Noizbehinka ahaztu arauak, eta gida zaitezte zuen irudimenarekin!

Irailean:


Kameraren moduak

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?



Hamaikakoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.



Lehiaketa **Non** dago?

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?

Saria

Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 6 urtetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, abuztuaren 20a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Zozketak!

Badakizu non dauden txoko hauek?

Herri zein kontinenteen mugak itxita egongo diren honetan, aukera ona da gure inguruan dauden txokoak ezagutzeko. Oraingoan ere joko bat proposatuko dizuegu: ezetz asmatu nongo «bazterrak» diren ondoko irudiak! Sartu gure webgunera eta eman erantzunak.

Txoko gehien asmatzen dituen HIRUKAlagunak bi pertsonentzako gau biko egonaldi bat NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatueta, logela edo apartamentuetan. Egonaldia behe denboraldian egin beharko da, astean zein aste-akabuan.

Parte hartzeko epea: abuztuaren 29ra arte.



Parte hartu Berba Azokaren tribialean!

HIRUKA.eus webgunean tribial bat osatu dugu. Aukeratu berba bakoitzaren definizio egokia eta irabaz ezazu pertsona birentzako asteburuko egonaldi bat Nafarroako Urmendi landetxean. Hitz guztiak Joseba Santxoren «Ustategi» atalean argitaratu dira.

Puntu gehien lortzen dituenak sari eder honetaz gozatu ahal izango du irailean eta urrian zehar aukeratutako egun bietan; berdinketa egonez gero, zozketa egingo da.

Parte-hartzea zabalik egongo da uztailaren 30era arte. Zorte on guztioi!



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



EUSKADIKO LANDA OSTATUAK



nekatur

Nekazalturismo Elkarteak • Euskadiko nekazalturismo eta landa-etxeak
Asociación Nekazalturismoa • Agroturismos y Casas Rurales de Euskadi

Nekaturrek eskeintzen dizu:

- Erreserben doako kudeaketa (logelak, apartamenduak, etxe osoak)
- Opari bonu eta txekuen salmenta
- Eskaintza eta Deskontuak Euskadiko erakunde turistikoetan
- Turismo edo/eta lan bidaietarako ostatuak
- Enpresa bileretarako edo opari bezala
- Eta askoz gehiago...



EUSKADI

943 32 70 90



www.nekatur.net

GETXO BONO 2021

OSTALARITZA

GOZATU

30€

ORDAINDU 20€

GOZATU

15€

ORDAINDU 10€

EROSI BONUAK
ESTABLEZIMENDUETAN

MERKATARITZA
ZERBITZUAK
AISIA

GOZATU

50€

ORDAINDU 34€

GOZATU

25€

ORDAINDU 17€

EROSI **HEMEN** ZURE BONUA

getxobono.eus



IKUSI ZERREDA
ESTABLEZIMENDUAK, DENDAK
ZERBITZUAK ETA JARDUERAK